

### 113. ALDIZKARIA - 2008ko irailaren 15a

**278/2008 EBAZPENA, abuztuaren 4koa, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, Lanbide Heziketako ikasketak, Arte Plastikoetako eta Diseinuko lanbide ikasketak eta Lanbide Hastapeneko Programak ematen dituzten ikastetxe publikoen antolaketa eta jarduna 2008-2009 ikasturtean arautuko dituzten jarraibideak onesten dituena.**

Lanbide Heziketaren Zerbitzuko zuzendariak aldeko txostena aurkeztu du ebazpen hau onesteko. Ebazpen honen xedea jarraibide batzuk onestea da, Lanbide Heziketako ikasketak, Arte Plastikoetako eta Diseinuko lanbide ikasketak eta Lanbide Hastapeneko Programak ematen dituzten ikastetxe publikoen antolaketa egokia eta funtzionamendu ona lortzeko beren autonomiaren esparruan, 2008-2009 ikasturtean.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 22.1.d) artikulua ematen dizkidan ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT:

1. Honako honetan ageri diren jarraibideak onestea. Aipatu jarraibide horiek Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan Lanbide Heziketako ikasketak, Arte Plastikoetako eta Diseinuko lanbide ikasketak eta Lanbide Hastapeneko Programak ematen dituzten ikastetxe publikoen antolaketa eta jarduna arautzen dituzte 2008-2009 ikasturterako.

2. Ebazpen honek aipatutako jarraibideak ikastetxe pribatuei, hots, itunduak direnei edo diru-laguntza jasotzen dutenei aplikatuko zaizkie, indarra duten araei jarraikiz, dagozkien afera orotan.

JARRAIBIDEAK

Ikasturte hasierako jarraibideek Hezkuntza Departamentuak prestatzen duen dokumentu bat osatzen dute eta horren bidez ildo batzuk ezartzen dira, horrela ikastetxeek, beren autonomiaren esparruan, indarra duen araudia antolaketako eta jarduneko beharrei egokitzeko, hasten den ikasturtean.

Jarraibideetan bost kapitulu diferente daude:

Lehenengo kapitulua Urteko Programazio Orokorrari dagokio: ikastetxeek garatu beharreko proiektu batzuei buruzko jarraibideak dira.

Bigarrenean ikastetxeen funtzionamendurako beharrezkoak diren antolamendu alderdi batzuk zehazten dira.

Hirugarren kapitulua Nafarroako Lanbide Heziketaren Ildo Estrategikoei buruzkoa da; kapitulu horretan ildo horiek ikastetxeetan nola gauzatzen diren azaltzen da.

Laugarrenean Ikastetxe Integratueterako berariazko jarraibideak ematen dira.

Bosgarrenean Arte Plastikoak eta Diseinua ematen duten ikastetxeei buruzko alderdiak zehazten dira.

I.-Urteko programazio orokorra.

1. Urteko programazio orokorra.

Urteko programazio orokorra oinarrizko tresna bat da eta ikastetxeko plangintza, antolaketa, funtzionamendua eta hobekuntza plana biltzen ditu. Autonomiaren eta eraginkortasunaren printzipioei jarraikiz eginen da, hala prozesuak nola dokumentazioa ahalik eta gehien sinplifikatuz.

Zuzendaritza taldeak bere baliabideak kudeatzen ahalko ditu, eta planifikatu eginen ditu (antolaketa, ordutegia, barne eta kanpo koordinazioko egutegia, etab.) eskola orduetan eta horietatik kanpo 2008-2009 ikasturtean egiteko beharrezkotzat jotzen dituen jarduerak, bai autonomia bai indarreko araudia errespetatuz.

Lanbide Heziketako ikasketak eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko lanbide ikasketak ematen dituzten ikastetxeek (ikastetxe integratuak bazter utzita, horiek alderdi honetan III. kapituluko jarraibideak beteko baitituzte), Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren aplikazio esparruan, beren autonomiaz baliaturik, plangintza instituzionaleko dokumentuak berrikusi egin beharko dituzte eta lege horren V. tituluko II. kapituluan ezarritakora egokitu, bai eta heziketa ziklo bakoitzeko curriculumetan ezarritakora ere (dagozkien foru dekretuetan arautuak).

2008-2009 ikasturterako, ikastetxeek prestatua izan behar dute ezartzen diren ikasketen curriculumen zehaztapena.

Gainera, ikastetxeetan ezarritako planak aztertu eta programatu eginen dira, hala nola Tutoretza Plana (TP), Ikastetxeko Bizikidetzeta Plana (IBP), Kalitate Plana, Berdintasun Plana eta Prestakuntza Plana, baita Lanbide Heziketaren Ildo Estrategikoekin zerikusia daukatenak ere, hala urteko programazio orokorrean sartzeko.

2. Programazio didaktikoak.

Heziketa zikloak ematen dituzten ikastetxeek lanbide moduluen programazioak egin beharko dituzte. Programazio horiek Urteko Programazioan jasoko dira.

Programazio didaktiko horien bitartez curriculum garapena ikasgelaren eremuan gauzatzen da.

Hezkuntza sistemaren barruan lanbide heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duen abenduaren 15eko 1538/2006 Errege Dekretuan xedatzen denaren arabera, irisgarritasun unibertsalaren irizpidearekin bat, ikasketa horiek egiteko beharrezkoak diren bitarteko eta baliabideak jarriko dira. Nolanahi ere, egokitzapen horien koordinazioa eta jarraipena egitea ikaslearen tutoreari dagokio. Orientazio arloko langileen aholkuak jasoko ditu horretarako. Programazio didaktikoak helburu hori lortzeko beste baliabide bat izan beharko dira.

Kasuan kasu, ezgaitasunak dituzten pertsonen beharrianak artatzeko curriculumeko egokitzapenak egingen dira. Hori, kurtsoetan moduluak ematen dituzten irakasleen ardura izanen da. Betiere kasuan kasuko zikloko koordinatzaileek edo departamentu didaktikoetako buruek gainbegiratuko dute lan hori.

### 3. Kalitatea.

Martxoaren 6ko 230/2006 Ebazpenak abian jarri zuen kalitatea kudeatzeko sistemak (SGCC-2006 Araua) ikastetxe publikoetan zabaltzeko programa. Honek erronka bat ezarri die ikastetxeei: Erabateko kalitatea kudeatzeko sistemak ezartzea.

Erronka hau hezkuntzako kalitatearen lehen bi zikloak burutu dituzten ikastetxeei ezarri zaie batik bat: hezkuntza sistemaren antolamenduen ezarritako legezko zehaztapenak betetzea eta Hezkuntza Departamentuak ikastetxeetarako onetsitako hobekuntza planak ezartzea eta ebaluatzea.

SGCC-2006 Arauak ikastetxeetan nahitaez egin beharreko jarduerak jaso ditu. Gainera, berariazko prozesu bat ezarri du EFQM autoebaluaziorako, hau da, Hezkuntza Departamentuak erabateko kalitatea sustatzeko hautatu duen eredurako, eta beste bat zerbitzuen gutunak abian jartzeko.

Ikastetxeei SGCC-2006 Arauan ezarritako sistema oso-osorik ezartzen laguntzeko, ikastetxeek prestakuntza eta jardun onaren inguruko informazioa trukatzeko sareak abiarazi dira, eta kalitatearen arduradunaren orduak aintzatetsi dira.

Ikastetxeko kalitatearen arduradunak zuzendaritza taldeari SGCC ezartzen lagunduko dio, eta agirien eta adierazleen kudeaketaren ardura hartuko du.

Horretarako irakastorduek murriztuko zaizkio sareko prestakuntzan aritu ahal izateko eta postuari dagozkion lanak egiteko. Murrizketa

ikastetxe motaren arabera izango da: 6 irakastordu BHletan eta IIPetan. Ahal dela, irakastorduen murrizketa astearte goizean aplikatuko da, zuzendaritzakoei prestakuntzarako eta koordinaziorako egiten zaien bezala.

Programaren ezarpenaren eta garapenaren eta baliabideen erabilpenaren jarraipena Hezkuntza Kalitatearen Atalaren ardura izanen da, Ikastetxeen Plangintza eta Garapenerako Atalarekin koordinaturik. Ikasturtea amaitutakoan, sarean lan egiten duten ikastetxeek txosten bat egingo dute ikastetxean egindako lanaz. Txosten horretan hurrengo ikasturterako konpromisoak jasoko dira. Txostena Hezkuntza Kalitatearen Atalari bidaliko zaio; gero honek, Ikastetxeen Plangintza eta Garapenerako Atalarekin koordinaturik, burutzapen maila begiztatuko du eta, haren arabera, hurrengo ikasturterako kalitatearen arduraduna ematea aldeztuko du edo ez.

Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuak ikastetxeetako kudeaketa sistemak ebaluatuko ditu (diseinatu eta ezarri bada), eta SGCC Arauak ezarritakoarekin bat datorren egiaztatuko du. Ebaluazioaren emaitza positiboa bada, "Ikastetxe bikaina" aitortpena ematea proposatuko da.

#### 4. Bizikidetza.

632/2005 Ebazpenak Ikastetxeetako Bizikidetza Hobetzeko Plana ezarri zuen. Harrezkero elkarbizitza planak prestatu eta abiarazi dira ikastetxeetan eta denetarikoko garapen mailak lortu dira.

Hezkuntza Departamentuko Bizikidetzarako Aholkularitzak irakasleen trebakuntza antolatzen du, bai sareen bitartez, bai mintegiak eginez, helburua lantalde egonkorrak sortzea dela.

Prestakuntzako sareak eta jardunaren inguruko trukerako sareak baliatzen dituzten ikastetxe batzuk beren araudiak eta bizikidetza egiturak aztertzen eta aldatzen ari dira, diagnostikoak egiten dituzte aldizka, bitartekaritzako programa berriak sartzen ari dira (ikasle laguntzaileak, ikasle tutoreak, guraso bat taldearen ordezkari), bai eta antolamenduaren arloko eta curriculumaren arloko neurriak ere, eta den-dena bizikidetzarako eredu integratua ezartzeko.

Prestakuntzako mintegiek zabalik jarraituko dute sareetan parte hartzeak berekin dakartzan konpromisoak onartzen dituzten ikastetxeentzat.

Bizikidetzarako Aholkularitzak Bigarren Hezkuntzako ikastetxeek Bizikidetzaren Estatuko Behatokiak sustatutako bizikidetzaren diagnostikoan parte hartzea antolatuko du.

2008-2009 ikasturtean ikastetxe bakoitzeko bizikidetzarako batzordeak bizikidetzaren plana proposatu, prestatu eta ebaluatuko du. Ikastetxeek bizikidetzaren eta planen hobekuntzaz hausnartzeak oinarriak finkatuko ditu eskubideei eta betebeharrei buruzko arautegiaren beharrezko eguneratzeaz eztabaidatzeko.

Ikastetxe publiko jakin batzuetan Bizikidetzaren Arduraduna ezarriko da. Arduradun hau bizikidetzarako batzordean arituko da eta zuzendaritza taldeari ikastetxeko bizikidetzaren plana prestatzen, abian jartzen, aplikatzen eta suspertzen lagunduko dio. Horretarako, lau irakastordu gutxiago eman beharko ditu.

Bizikidetzaren arduraduna duten ikastetxeek konpromiso hauek hartu behar dituzte:

a) Irakastordu murrizketa bizikidetzaren sareei buruzko prestakuntza jasotzen duen pertsona bati aplikatzea.

b) Bizikidetzarako egiturak bermatzea: bizikidetzarako batzorde funtzionala.

c) Bizikidetzaren Plana erabat ezartzea 2008-09 ikasturtean. Berrikuntzarako joera bultzatzea: ikaslearen prestakuntza eta parte-hartze aktiboa, prebentzioa ardatz hartzea, estrategia zehatzak ezartzea gatazkak konpontzeko, eta hezkuntza komunitateko agenteen inplikazioa lortzea.

Bizikidetzarako Aholkularitzak prestakuntza sareetan eta jardunaren inguruko informazioa trukatzeko sareetan parte hartzen duten bizikidetzaren arduradunak beren jardunean lagunduko die.

Sarean lan egiten duten ikastetxeek txostenak egingo dituzte ikastetxean egindako lanaz. Txosten horietan hurrengo ikasturterako konpromisoak jasoko dira.

Bizikidetzarako Aholkularitzak planen burutzapen maila begiztatuko du eta, haren arabera, hurrengo ikasturterako Bizikidetzaren arduraduna ematea aldeztuko du edo ez.

Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuak 2008-2009 ikasturteko planean ebaluazioa jasoko du, ondokoez baliatuta: urteko bizikidetzaren plana eta bizikidetzaren arduradunak egindako azken memoria.

## 5. Berdintasuna.

Emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarri da berdintasunaren printzipioa

zeharkakoa dela herri administrazioetan: araugintza, aurrekontuak zein jardueren burutzapena.

Halaber, berdintasunaren printzipioa Administrazioaren hezkuntza politikan txertatu du eta ekintza honen konpromisoak bideratu ditu gizonen eta emakumeen arteko berdintasunerako hezkuntzaren bitartez.

Ildo horretan, Hezkuntza Departamentuak bere egituran helburu hau ezarri du: "hezkuntza sistema berdintasunaren printzipiora egokitzea, hezkidetzaren ikuspegia eta genero ikuspegia plan eta programa guztietan txertatuta".

Horretarako, 2008an Berdintasunaren Diagnostikorako Proiektuak eta Hezkuntzako Genero Berdintasunerako Planak hobekuntzarako ildoak ezartzeko aukera emanen dute. Ildo horiek apurka garatzen ahalko dira, baita ikastetxe bakoitzaren egoerara egokitu ere.

Berdintasuna irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuetan txertatzeari dagokionez, 2008-2009 ikasturtean heziketa ildo berriak ezarri dira. Ildo horiek ondoko helburu hauekin planteatu dira:

a) Antolakuntzaren eta pedagogiaren arloko estrategia komunak identifikatzea, Ikastetxeetan berdintasuna arrakastaz eta modu iraunkorrean txertatzeko.

b) Berdintasun Planaren nondik norakoen berri ematea eta abiapuntuako egoera nahiz ikastetxeak Planaren ardatz bakoitzerako ezarri nahi dituen konpromisoak identifikatzeko laguntza zehatza ematea.

c) Irakasleak eta zuzendaritzako langileak antolakuntzaren eta pedagogiaren arloetako ikuspuntu berriak apurka txertatzeko gaitzea.

Berdintasuna eta hezkidetzaren txertatzeari dagokionez, ikastetxeek 2008-2009 ikasturtean prestakuntzako ekimen berrietan parte hartuko dutenez, 2009-2010 ikasturtetik aurrera Ikastetxeak Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuetan eta Urteko Programazio Orokorrean definitutako konpromisoak txertatzen ahalko dira. Horretarako, apurka, ikastetxeek behar dituzten orientabidea eta laguntza jasoko dituzte.

LOEk, bere 126.2 artikuluan, Eskola Kontseiluko kide bat gizonen eta emakumeen arteko benetako berdintasuna sustatuko duten hezkuntza arloko neurriak bultzatzeko izendatzea xedatzen du. Horri dagokionez, Hezkuntza Departamentuak zera proposatzen du: kide hori izendatzerakoan esku hartzeko, koordinatzeko edo Hezkuntzako Genero Berdintasunerako Planaren ondoriozko neurriak bultzatzeko gaitasuna kontuan hartzea.

6. Ingurune osasungarriak, osasun hezkuntza eta osasunaren sustapena.

Ikastetxeek ikasleen eta eskola komunitateko kide guztien osasuna babesten eta sustatzen duen ingurunea sortu behar dute eta bizimodu osasungarriak bultzatu behar dituzte.

Ikastetxeek bizimodu eta aztura osasungarriak sustatzeko proposamenak sartu behar dituzte beren planetan, ondoak landuta: elikadura, ariketa fisikoa, adimen higiena, gorputzeko higiena, postura higiena, segurtasuna eta ezbeharren prebentzioa, drogaletasunaren prebentzioa, eta hezkuntza afektibo-sexuala.

Aurreikusten diren jarduerak Urteko Programazio Orokorrean sartuko dira.

Orobat, ikastetxeetako eskola kontseiluek ikastetxeetan erretzeko debekua (indarreko legeriak ezartzen duena) betearazi behar dute eta neurri egokiak ezarri behar dituzte ikastetxean edari alkoholik ez saltzeko eta ez kontsumitzeko. Baldintza hauek kontuan hartu behar dira ikastetxeko barne araubideko erregelamendua prestatzen denean.

7. Ebaluazioa eta hobekuntza.

Ebaluazioa etengabeko hobekuntzari lotuta dago, eta funtsezko laguntza eta baliabidea da, gainera, errealitatea eta ikastetxeetan izaten diren hezkuntza jarduketan ondorioak hobeki ezagutzeko.

Inguru horretan, kanpoko ebaluazioa hartu behar da ongi dauden eta, beraz, mantendu eta areagotu behar diren alderdien eta hobetu behar direnen elementu identifikatzaile gisa. Diagnostikorako eginkizun horretaz gain, kanpoko ebaluazioaren bidez ikuspuntuak aldera daitezke, eta ikastetxeak berak egiten duen barne ebaluazioari kanpoko erreferente bat eman.

Ikastetxeetara egiten dituen ohiko bisitetan Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuak aholkuak emango dizkie barruko ebaluazioaz, eta Hezkuntza Departamentuak ezarritako hobekuntza arloak kontrolatu eta gainbegiratuko ditu. Barne eta kanpo ebaluazioen emaitzek hurrengo ikasturteetako hobekuntza arloetan aldaketak egiteko balioko dute.

II.-Antolaketako gaiak.

1. Heziketa zikloen ebaluazioa.

Ebaluazioari dagokionez, LOGSE aplikatzearen ondorioz ezarritako lanbide heziketako heziketa zikloek uztailaren 11ko 426/1995 Foru Aginduaren mendean egoten jarraituko dute.

Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoa eta Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aplikatuz ezarriko diren hezkuntza sistemaren esparruko lanbide heziketako heziketa zikloak abenduaren 15eko 1538/2006 Errege Dekretuan ezarritako gutxienerako mailak garatzeko moduan arautuko dira:

- a) Heziketa zikloen ebaluazioa lanbide moduluen arabera egingen da.
  - b) Lanbide moduluetakako bakoitzeko helburuak eta ebaluazio irizpideak nahiz heziketa zikloaren helburu orokorrak erreferentzia gisa hartuta egingen da ebaluazioa.
  - c) Lantokietako Prestakuntzako lanbide moduluen ebaluazioan ikastetxeko tutoreak eta enpresak izendatutako tutoreak lagunduko dute. Ebaluazio horretan "gai" edo "ez gai" kalifikazioa emanen da. Modulu hori bi deialditan ebaluatzen ahalko da.
  - d) Gainerako lanbide moduluetan lau deialdi arrunt egingen dira. Salbuespen gisa, Hezkuntza Departamentuak ikasketen bilakaera normala baldintzatzen edo eragozten duten arrazoiengatik aparteko deialdi bat ezartzen ahalko du.
  - e) Lanbide moduluen kalifikazioa bat eta hamar zenbakien bidez adieraziko da, hamartarrik gabe. Bosteko eta goragoko kalifikazioak positiboak izanen dira. Heziketa zikloko azken nota batez besteko aritmetikoa izanen da, eta bi zenbaki hamartarrekin adieraziko da.
  - f) Ebaluazio prozesuko agiriak hauek dira: ikaslearen ikasketa espedientea, ebaluazio aktak eta banakako ebaluazio txostenak.
  - g) Heziketa ziklo bakoitzeko ikasketak guztiz gainditzen ez dituztenek, gainditu dituzten lanbide moduluen ikasketa ziurtagiria jasoko dute. Ziurtagiri horrek, ondorio akademikoak izateaz gain, lortutako lanbide gaitasunen egiaztapen partzialeko ondorio metagarriak izanen ditu.
- Arte Plastikoetako eta Diseinuko heziketa zikloen ebaluazioa urtarrilaren 28ko 15/1997 Foru Aginduaren arabera egiten jarraituko da.

## 2. Erreklamazioak.

Ikasleei beren errendimendu akademikoaren balorazio objektiboa bermatzeko, beharrezkoa da ikasleek aurretik izatea helburuen, ikaskuntzaren emaitzen, edukien eta ebaluazio irizpideen berri, hala nola balorazio positiboa izateko eskatutako gutxienerako emaitzena, kalifikazio irizpideena eta ikasketak ebaluatzeko ikasturtean erabiliko diren prozedurena.

Irakasle titularrak ikasleek, haien gurasoek (adingabeko ikasleen kasuan) edo legezko ordezkariak programazio didaktikoei buruz eskatzen dituzten argibideak emanen dizkie. Ebaluazioa egiteko tresnei buruzko informazioa ere emanen die eta ikasleek zilegi izanen dute egin dituzten idatzizko proba, ariketa eta lanak ikusi eta irakaslearekin batera aztertzea.

Ebaluazioa egiteko tresnak azken erabakiak hartu edo ikasturte amaierako kalifikazioak eman ondoko hiru hilabeteetan gordeko dira gutxienez.

Ikasle guztiek eskubidea dute beren kalifikazioan eragina izanen duen edozein azterketa edo proba idatzi zuzendua eta kalifikatua ikusteko.

Ikasleek, edo adingabeko ikasleen kasuan haien gurasoek edo legezko ordezkariak, zilegi izanen dute balorazio eta kalifikazioei buruzko argibideak eskatzea. Kalifikazio partzialen inguruko erreklamazioak ikastetxean bertan ebatziko dira. Irakasleak argibideak eman ondoren ikaslea mailako azken kalifikazioarekin ados ez badago, berriz aztertzeko eskatzen ahalko dio idatziz ikasketaburuari jakinarazpena egin eta bi egun balioduneko epealdian.

Azken ebaluazioaren inguruko erreklamazioetan bi bide daude:

a) Azken kalifikazioa eta/edo agiria eskuratzekoa berraztertzea: zikloko ekipoei, departamentu didaktikoei edo, kasua bada, epaimahaiei, hurrengo egun baliodunean, berraztertzeko eskabideak aztertuko dituzte eta txostenak eginen dituzte; txostenetan erreklamazioaren inguruko erabakia jasoko dute eta horretarako arrazoiak azalduko dituzte. Txostena ikasketaburuari igorriko zaio eta horrek kopia bat bidaliko die ikasleei edo, hala behar denean, haien gurasoei edo legezko ordezkariari.

b) Maila igoserari edo titulazioari buruzko erabakia berraztertzea: berraztertzeko eskaera aurkezteko epealdia bukatzen denetik bi eskola egun igaro baino lehen irakasle taldeak aparteko bilera eginen du eta bertan erabakia aztertuko du aurkeztutako alegazioak kontuan hartuta.

Tutoreak aparteko bilera horretako aktan honakoa jasoko du: aurretiazko gorabeheren azalpena, egitateak eta jarduketak, ebaluazio batzordearen edo irakasle taldearen deliberoen alderdi nagusiak eta berraztertu den erabakiaren aldaketa edo berrespena.

Ikasketaburuak idatziz jakinaraziko die ikasleari eta (adingabeko ikasleen kasuan) haien gurasoei edo legezko ordezkariari hartutako erabakia berretsi edo aldatu den, horretarako arrazoiak emanda. Horrek amaiera emanen dio erreklamazio bideari.

Ikastetxean berraztertze prozesua agortzen duten ikasleek zilegi izanen dute zuzendariari eskatzea erreklamazioa Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzura igor dezala, azken jakinarazpena egin eta bi eguneko epean. Adingabeko ikasleen kasuan haien gurasoek edo legezko ordezkariak egiten ahalko dute eskabide hori.

Ikastetxeko zuzendaritzak hiru egun igaro baino lehen Ikuskapenaren eta Zerbitzuen Zuzendaritza Nagusira bidaliko du erreklamazioaren espedientea. Zuzendari nagusiak ebazpena emanen du -eta horrek administrazio bideari amaiera emanen dio- hamabost egun balioduneko epean espedientea jasotzen denetik hasita, Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuaren txostena kontuan izanik.

Ikaslearen erreklamazioaren aldeko ebazpena ematen baldin bada arestian aipatutako instantzietakoren batean, bidezko zuzenketa agerraraziko da ebaluazio agirietan, ikastetxeko idazkariak sinatutako eta zuzendariak ikus-onetsitako eginbidearen bitartez.

Kalifikazioen kontrako berraztertze eskaerak eta erreklamazioak jarraibide hauetan ezarritakoari lotuko zaizkio, eta, jarraibide hauetan arautu ez diren aferetarako, uztailaren 11ko 426/1995 Foru Aginduari edo hori ordeztzen duen arauari eta urtarrilaren 28ko 15/1997 Foru Aginduari.

### 3. Ordutegi malgutasuna.

Ikastetxeen arteko koordinazioa handitzeko, ikastetxeetako zuzendariak astearte goizak eskola ordurik gabe izanen dituzte.

### 4. Departamentuko burua.

Departamentu bakoitzeko buruak Erregelamendu Organikoan eta 258/1998 Foru Aginduan aipatzen diren eginkizunak bere gain hartuko ditu eta, horretaz gainera, 2008-2009 ikasturterako Urteko Lan Planaren garapenean buru izanen da; plan horretan, zuzeneko eta zeharkako eragina duten hobekuntza arloen inguruko jarduketak sartuko dira, eta Lanbide Heziketako Irakasleen Prestakuntza Plana egiteko eta garatzeko lanetako partaidetza eta jarraipena ere bai.

### 5. Ordutegi osagarriaren inguruko azalpenak.

Plangintza instituzionaleko tresnak prestatzen edo espezialitatearekin zerikusia duten prestakuntza jardueretan nahitaez eman beharreko denboraren erdiak (hilabeteko lehen eta hirugarren asteazkena) lehentasuna izanen du irakasleen beste edozein aukeraren aurretik; horren edukia zuzendaritza taldeak ezarriko du.

Hurrengo ikasturtean ezarriko diren zikloetarako curriculumaren zehaztapena landuko da denbora horretan.

## 6. Matrikulari uko egitea.

Heziketa ziklo bat egiten ari diren ikasleek eta bukatzeko deialdi mugatuak dituzten ikasketak egiten ari diren ikasleek ere, zilegi izanen dute beren espediente akademikoak gordetzen dituen ikastetxeko zuzendariari eskatzea matrikula baliogabetzeko, baldin eta agiri bidez eta era frogagarrian egiaztatzen badute ondoko gorabehera hauetako bat:

- a) Eritasun fisiko nahiz psikiko luzea izatea.
- b) Lanpostu bat eskuratu izana.
- c) Familiako beharkizunak izatea.

Eskaerak ikastetxean egindako lanbide moduluak amaitu baino bi hilabete lehenago egin beharko dira eta, ikaslearen irakasle taldeari entzun ondoren, ikastetxeko zuzendariak eskaera ebatzi eta matrikula baliogabetzeko baimena emanen du, baldin eta aipatu arrazoi horietako bat frogatzen bada eta, hori dela medio, ezinezkoa izan bada eskatzailea eskolara normalki joatea eta etengabeko ebaluazioaren bidez haren kalifikazioa egitea.

Aipatu arrazoiak ez bezalako bestelako arrazoi berezi batzuk daudenean, matrikulari uko egiteko eskabideak epe berean aurkeztuko zaizkio ikasketa espedientea duen ikastetxeko zuzendariari, eta, hark, txosten batekin batera eta, hala badagokio, behar den dokumentazioarekin batera, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen Zuzendaritza Nagusira igorriko du, behar den ebazpena eman dadin.

Matrikula baliogabetzeko baimena ematen den kasu guztietan, dagokion eginbidea agerraraziko da ikaslearen ikasketa espedientean eta kontuan hartuko da baliogabetze horrek baimendu den ikasturte horretan bakarrik izanen duela eragina. Horrelako kasuetan, ikasturte hori ez da kontuan hartuko irakaskuntza horietan egoteko gehieneko epea kontatzean. Matrikula baliogabetuz gero, hurrengo ikasturterako ikaspostuaren erreserba galduko dute.

## 7. Zaintzak.

Zaintzako irakaslearen eginkizun nagusiak hauek dira:

- a) Irakasleak huts egiteagatik edo beste edozein arrazoirengatik zaindaririk ez duten ikasleei kasu egitea.

Irakasleren batek aurrez baldin badaki huts eginen duela, antolaturik utziko du ikasleek zer lan egin behar duten gelan, eta ikasketaburuari emanen dio laneko plan hori.

Ikasleek ez badute inolako lan berezirik, edo hala hitzartzen badu huts egiten duen irakasleak zaintzako irakaslearekin, zaintzako irakasleak zilegi izanen du ordu hori ikasleei bere gai propioa emateko erabiltzea, betiere ikasketaburuaren baimena baldin badu, eta gainerako ordutegia aldatzen ez bada.

b) Korridoreetan ordena zaintzea eta, oro har, ikasleek gelaz kanpo duten portaera. Horrek ez du esan nahi beste irakasleek eginkizun hori bete behar ez dutenik.

c) Bere zaintza aldian sortzen diren gorabehera guztiak konpontzea, baita ikastetxeko norbait mediku beharrean gertatuz gero hartarako dilijentziak egitea ere, eta ikasketaburuaren lehenbailehen jakinaren gainean jartzea.

d) Ikasketaburuak zaintzei buruzko parte bat prestatuko du egunero, beti Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuaren eskura egonen dena. Gutxienez honako datuak izanen ditu:

-Irakasleen hutsegite eta atzerapenak.

-Ikastetxeko edozein egoitzatan izan diren gorabeherak.

-Gertatu diren istripuak.

-Zaintzako irakasleen sinadurak.

Zuzendaritzak baimena eman dezake irakasleren baten zaintza orduak berariazko beste jarduera batzuekin trukatzeko, baldin eta zaintza ordu guztiak beteta badaude eta jarduerak Klaustroak onetsi baditu.

8. Heziketa ziklo bateko irakasleen jarduera lantokietako prestakuntza aldian eta prestakuntza ikastaroan.

Irakasleek, Lantokietako Prestakuntza Aldian, ondoko eginkizun hauek izanen dituzte batez ere:

a) Lantokietako Prestakuntzara sartu ez diren ikasleak atenditzea.

b) Lantokietako Prestakuntzako tutoreari laguntzea.

Halaber, jarduera horiei guztiei erantzuna eman ondoren, beste hauei heltzen ahalko zaie:

c) Hezkuntza Departamentuak onetsitako Lanbide Heziketako berrikuntza proiektuetan parte hartzea.

d) Teknologia eta lanbidea hobetu eta eguneratzea enpresetako egonaldien, lantaldeen, eta abarren bitartez.

e) Beren konturako probak egitea Lanbide Heziketako eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko tituluak lortzeko.

f) Erdi mailako eta goi mailako heziketa zikloetan sartzeko proben Ebaluazio Epaimahaietan nahiz heziketa zikloetan sartzeko probak egiteko egin beharreko gainerako zereginetan parte hartzea.

g) Langileen prestakuntzan eta prozedura ez-formalen bidez lortutako gaitasun profesionalaren ebaluazioan laguntza ematea.

h) Atzerriko programen ondoriozko beharrei erantzutea.

Horregatik, ikasketaburuak laneko plan bat egin beharko du. Plan hori Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuak ontzat eman beharko du.

Laneko plana ongi garatu ahal izateko, horretan ari diren irakasleen banakako ordutegiak aldatzen ahalko dira, ordutegiak prestatzeko irizpide orokorrak errespetatuz.

Heziketa zikloetan sartzeko proben prestakuntza ikastaroko irakasleek, ikastaroa amaitzen denetik probak egin arte doan aldian, hau egin beharko dute:

a) Batez ere probak eginen dituzten ikasleak atendituko dituzte.

b) Gainera, erdi mailako eta goi mailako heziketa zikloetan sartzeko proben Ebaluazio Epaimahaietan nahiz heziketa zikloetan sartzeko probak egiteko egin beharreko gainerako zereginetan parte hartuko dute.

9. Lanbide Hastapeneko Programen esparru praktikoan ari diren irakasleak.

Lanbide Hastapeneko Programetan behin betiko destinoa duten esparru praktikoko irakasleek, behar den titulu akademikoa ez dutenek izan ezik, beren ordutegia osatzen ahalko dute CEPan edo Lanbide Heziketako Heziketa Zikloetan eskolak emanez, 229/2002 Foru Dekretuaren 10. artikuluan ezarritako hautaketa ordenari jaramon eginda.

Lanbide Hastapeneko Programetako edo CEPko irakasle taldean ari diren esparruko irakasleek koordinaziorako eta tutoretzarako dituzten

hiru orduetatik bat bederen gordeko dute programazio didaktikoaren garapen eta ebaluazioaren inguruko koordinazio lanetarako eta tutoretza lana koordinatzeko lanetarako (uztailaren 6ko 225/1998 Foru Dekretuaren 22.3 artikulua).

#### 10. Teknologia Berrien arduraduna.

Teknologia Berrien arduradunaren lana azaroaren 4ko 229/2002 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera izanen da.

Hauexek dira teknologia berrien arduradunaren lanaren ardatzak: ikastetxeko ekipo informatikoak eta ikus-entzunezkoak koordinatzea eta mantentzea, gorabeherak konpontzeko laguntza teknikoa ematea, material informatikoa eta ikus-entzunezkoa behar bezala erabiltzeko irizpideak ezartzea, eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilpena koordinatzea.

Teknologia berrien arduradunak ordu kopuru hau edukiko du bere lanak egiteko:

- a) 30 irakasle bitarteko ikastetxeak: astean 2 irakastordu, eta 2 ordu osagarri (ikastetxeko beharrek horretarako aukera ematen badute).
- b) 31 eta 60 irakasle bitarteko ikastetxeak: astean 3 irakastordu, eta 3 ordu osagarri (ikastetxeko beharrek horretarako aukera ematen badute).
- c) 60 irakasle baino gehiagoko ikastetxeak: astean 4 irakastordu, eta 4 ordu osagarri (ikastetxeko beharrek horretarako aukera ematen badute).

#### 11. Hasierako Lanbide Kualifikaziorako Programak.

2008-2009 ikasturterako Hasierako Lanbide Kualifikaziorako Programak ezarri dira Oinarrizko modalitatean eta modalitate Berezian. Horien iraupena urte batekoa eta hiru urtekoa izanen da, hurrenez hurren.

### III.-Lanbide heziketaren ildo estrategikoak.

#### 1. Lanbide Heziketako titulu berriak ezartzea.

2008-2009 ikasturterako titulu berriak (Mekanizazioko teknikaria, Sukaldaritza eta Gastronomiako teknikaria, Analisisien laborategiko eta kalitate kontroleko goi mailako teknikaria eta Haur Hezkuntzako goi mailako teknikaria) ezarriko direnez, gerta liteke desagertzeaz dauden Teknikari eta Goi Mailako Teknikari tituluen lehen mailako modulu guztiak gainditzen ez dituzten ikasle batzuen egoera zailak izatea;

egoera horiek konpontzeko, ondoko jarraibide hauei jaramon eginen zaie:

a) Eskola orduen %25 edo gehiago egiten duten modulu bat edo batzuk gainditu gabe izateagatik 2. mailara igaro ez diren ikasleak.

Kasu horretan, urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoan ezarritako Teknikari eta Goi Mailako Teknikari tituluei dagozkien lehen mailako ikasketak osatu ez dituztenek titulu berriaren ikasketak egin beharko dituzte; kasuan kasu, gainditu dituzten lehen mailako moduluak baliokidetu beharko dituzte, eta ziklo berriaren lehen maila osatzen duten gainerako moduluak egin.

Deialdi kopuruari dagokionez, hezkuntza sistemaren barruan lanbide heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duen abenduaren 15eko 1538/2006 Errege Dekretuan eta Nafarroan lanbide heziketako irakaskuntzaren ebaluazio- eta matrikula-prozesua garatzen duen araudian xedatuta dagoenari jaramon eginen zaio.

b) 1. mailako moduluren bat gainditu gabe izanik 2. mailara igarotzen diren ikasleak.

Kasu horretan, urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoan ezarritako Teknikari eta Goi Mailako Teknikari tituluei dagozkien lehen mailako ikasketak osatu ez dituztenak desagertzeaz dagoen curriculumaren arabera antolatutako zikloko bigarren mailara igaroko dira. Ikastetxeak giza baliabide eta baliabide materialak eman beharko ditu, ikasleek lehen mailan gainditu gabeko moduluak osatu ahal izateko geratzen zaizkien deialdiak gainditu ahal izan ditzaten, gaur egun egiten den bezala.

## 2. Prestakuntza.

Ikastetxe bakoitzak irakasleentzako prestakuntza plana eginen du, hauek kontuan hartuta: lanbide heziketako titulu berriak, beharraketa Hezkuntza Departamentuak proposatutako ildo estrategikoak.

Beharrezkoa da ikastetxe bakoitzean prestakuntzako arduradun bat izatea. Arduradun horrek eginkizun hauek edukiko ditu, besteak beste: ikastetxeko prestakuntza plana prestatzeko prozesua sustatzea, plan horren ondoriozko berriazko beharren berri ematea lanbide heziketako irakasleen prestakuntzako bulegoari, eta behar orokorren berri ematea ere berari dagokion ILZko aholkulariei; halaber, bere eremuko ILZko prestakuntza kontseiluan parte hartzea eta ILZ horretan irakasleen ordezkari izatea, hala behar denean.

Plan horrek, halaber, irakasleen prestakuntza sustatu beharko du lehenatasunezko gaitan, Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoaren hirugarren xedapen

gehigarrian ezarrita dagoenaren arabera; hau da, gai hauetan: berrikuntza teknologiko eta didaktikoa, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak, hizkuntzak eta laneko arriskuen prebentzioa.

Ikastetxeetan lantaldeak eratuko dira heziketa ziklo berriak ezartzearen ondoriozko beharrian guztiak nahiz Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza sistemaren lanbide heziketaren ildo estrategikoari lotutako proiektuak burutzearen ondoriozko beharrianak atenditzeko helburuz.

Iruñeko eta Tuterako hizkuntza eskola ofizialek, ohiko eskaintzaren barruan, araubide ofizialeko plaza kopuru jakina erreserbatuko dute Nafarroako ikastetxe publikoetako irakasle funtzionarioek ingelesa, frantsesa edo euskara ikasteko. Horretarako, eskolek berek ezarriko dute izena emateko eta plazak esleitzeko prozedura.

### 3. Lantokietako prestakuntza.

Nafarroako Gobernuoko Hezkuntza Departamentuaren mendeko ikastetxeek, Lanbide Heziketako heziketa zikloak ematen dituztenek, alegia, heziketa ziklo bakoitzerako foru dekretu bidez ezarritako curriculumeko zati diren Lantokietako Prestakuntza moduluak antolatu beharko dituzte nahitaez.

Gobernu organoek eta irakaslan koordinatzeko organoek Lantokietako Prestakuntza Modulua antolatuko dute Nafarroako Foru Komunitatearen eremuan, Lanbide Heziketako heziketa zikloak ematen dituzten ikastetxeen Erregelamendu Organikoa arautzen duten arauetan ezarrita dagoenaren arabera.

#### 3.1. Lantokietako prestakuntza egiteko enpresak.

Lantokietako Prestakuntzako tutorearen ardura ikasle bakoitzari bere ezaugarrien arabera modulua eginen duen lantokia esleitzea da, entitate laguntzaile bakoitza aurretiaz jakinaren gainean dagoela. Ikasleak ezin izanen du inola ere prestakuntzarako lantokia bere kabuz bilatu.

Ikastetxeak Lantokietako Prestakuntza egiteko aukeratu dituen entitate laguntzaileak ikastetxearen eragin eremuaren barruan egonen dira, ahal dela. Ikasleari lantoki bat edo bestea esleitzeko hori hartu beharko da kontuan, eta ez ikaslearen bizilekua.

Ikasleen bizilekua edozein dela ere, ziklo jakin bateko Lantokietako Prestakuntza modulua beste leku batean egitea erabakitzen ahalko da baldin eta enpresaren ezaugarriak, eginkizunak edo laneratzeko aukerak kontuan hartuta leku hori egokia dela uste bada. Kasu horretan, lankidetzaren hitzarmena sinatu aurretik, edo ikasleak bertara bidaltzeko konpromisoa hartu aurretik -hitzarmena aurreko urteetan

sinatuta badago-, Zuzendariak Lanbide Heziketa eta Enpresaren Atalari baimena eskatu beharko dio.

### 3.2. Prestakuntza programa.

Lantokietako Prestakuntzako Tutoreak egin beharreko jarduerak eta enpresan lortu ahal diren ikasketa emaitzak proposatu beharko ditu, baita Lantokietako Prestakuntzako modulua eginen den entitate laguntzaileak horretarako izendatutako arduradunarekin hitzartu ere. Hitzartutako prestakuntza programaren erreferentzia-gunea modulu bakoitzerako ezarritako curriculuma izan behar da.

Prestakuntza programa ikasleak bertara sartu baino lehen egin eta sinatu beharko da

### 3.3. Lantokietako Prestakuntzaren jarraipena eta ebaluazioa.

Lantokietako Prestakuntzaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko, Lanbide Heziketako ikastetxeek lantokietako prestakuntza une bakoitzean arautzen duen araudian ezarrita dagoena bete beharko dute.

### 3.4. Lantokietako Prestakuntzaren balorazioa.

Kanpoko Jarduera Profesionalen Departamentuak ikasturte amaieran beharrezkoak diren bilerak eginen ditu ikasturtean egindako Jardueren Plana baloratzeko. Inguruabar horretan, Lantokietako Prestakuntzari buruz ikasleek, moduluko tutoreek eta enpresek duten gogobetetasunari buruzko inkestak eginen ditu. Inkesta horien emaitza Lanbide Heziketa eta Enpresaren Atalari bidaliko zaio, azter dezan eta bere jarraipena egin dezan.

## 4. Berrikuntza Proiektuak.

Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza sistemaren esparruan lanbide heziketaren antolamendua eta garapena arautzen dituen maiatzaren 26ko 54/2008 Foru Dekretuak biltzen dituen ildo estrategikoetako bat Lanbide Heziketako ikastetxeetan berrikuntza didaktikoa eta teknologikoa bultzatzea da.

Berrikuntza horren helburuak hauek dira:

1. Nafarroako enpresek erabiltzen edo garatzen dituzten teknologiarik modernoek Lanbide Heziketako espezialitateetan txertatzea.

2. Prestakuntza sistemak modernizatzea multimedia eta telekontrol arloko azken aurrerapenekin nahiz azken aurrerapen interaktiboekin, eta urrutiko prestakuntza elektronikoko plataforma sortzea lanbide heziketako ikastetxeetan.

Helburu horiek lortzeko, Hezkuntza Departamentuak onetsitako bederatzi proiektu lantzen ari dira Lanbide Heziketako Berrikuntza Proiektuetarako hirugarren deialdian.

Proiektu horien jarraipena egitea eta, orobat, aholku tekniko eta administratiboa ematea Berrikuntza Teknologikoaren eta Lanbide Heziketaren Atalari dagokio.

2008ko abenduaren 20a baino lehen, proiektu bakoitzaren koordinatzaileak egindako lanaren alde aurretiko balorazioa idatziko du.

Era berean, proiektuen koordinatzaileek 2009ko ekainaren 30a baino lehen azken memoria entregatuko dute. Memoria horretan Lanbide Heziketako Berrikuntza Proiektuetarako deialdia onesteko Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiaren abenduaren 31ko 189/2007 Ebazpenean araututako alderdiak agertu beharko dira.

5. Lanbide heziketa nazioartera ateratzea.

5.1. Lantokietako Prestakuntza atzerriko enpresetan.

Lanbide Heziketako modulu bat egiten ari diren ikasleek Lantokietako Prestakuntza Modulua egiten ahal dute beste hainbat herritako enpresetako egonaldien bitartez, dela modu ofizialean aintzatetsitako Europako programen bitartez, dela enpresekiko edo herri horietako erakundeekiko lankidetzaren bitartez, Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza sistemaren esparruan lanbide heziketaren antolamendua eta garapena arautzen dituen maiatzaren 26ko 54/2008 Foru Dekretuaren 27. artikuluan ezarrita dagoen bezala.

Egonaldietarako epeak heziketa ziklo bakoitzaren eskolen antolamenduaren arabera izanen dira.

Lanbide Heziketako ikastetxeek beste herri batzuetako enpresetako egonaldiak sustatzen dituztenean, Lantokietako Prestakuntzako Modulua egiteko Prestakuntza arloko akordioa eginen dute proiektuari lotutako eragile guztiekin: ikastetxearekin, enpresarekin, parte hartzen duten ikasleekin eta harrera-herriko bazkide bitartekariarekin, halakorik balego. Akordio hori Hezkuntza Departamentuak baimendu beharko du.

Halaber, ikastetxeek konpromiso hauek hartu beharko dituzte:

-Ikasleen lanbide gaitasunetan nahiz alderdi akademiko eta pertsonaletan oinarritutako informazio eta hautaketa prozesua egitea.

-Parte-hartzaile bakoitzari bere lanbide profilararekin zerikusia duen enpresa bat esleitzea.

-Nazioarteko estaldura duen istripuetarako eta erantzukizun zibileko aseguru bat kontratatzea.

-Bidaietarako, ostaturako, eta beharrezkoa izanez gero, parte-hartzaileak hizkuntza eta kultura aldetik prestatzeko laguntza logistikoa ematea.

Jarduera horietarako guztietarako Lanbide Heziketa eta Enpresaren Atalaren laguntza eta aholkua izanen dituzte.

Parte hartzen duten ikasleek, agiri bat sinatuz, enpresek eta harrera-herriek ezarritako portaera kodeak eta arauak errespetatzeko konpromisoa hartu beharko dute.

## 5.2. Atzerriko Lantokietako Prestakuntza moduluaren jarraipena.

Lantokietako Prestakuntza moduluaren jarraipena egiteko, atzerrian egiten duten ikasleei dagokienez, Lanbide Heziketako tutoreek ikasle horiekin aldi-aldi komunikatzeko harreman oneak ezarri beharko dituzte. Horretarako, komunikazio-sistema eraginkorrak hitzartuko dira, telefono bidez, posta elektronikoaren bidez, etab..

Ikaslearen eta bere Lanbide Heziketako ikastetxeko tutorearen arteko komunikazioa bermatzeko helburuz, eta modulu hau beste herri batean egiteak dituen berezitasunak kontuan hartuta, mota horretako proiektuetan parte hartzen duten ikasleek ondoko prozedura honi jarraitu beharko diote.

-Astean txosten bat egitea harrera-herriko lan hizkuntzan, enpresako tutoreak gainbegira dezan. Parte-hartzailea itzultzen denean, txosten horiek ikastetxean entregatuko dira sinaturik eta zigilaturik.

-Egindako jarduerak azaltzeko asteroko txostenak egitea, Ikastetxeko tutorearekin batera jarraipen telematiko egiteko.

## 5.3. Atzerriko Lantokietako Prestakuntza moduluaren ebaluaziorako neurriak.

Atzerriko Lantokietako Prestakuntza modulu modu ofizialean aintzatetsitako Europako programen bidez egiten bada, ebaluazioaren arduradunek, ebaluazio hori egin baino lehen, ikasleek Europako programa horiek arautzen eta gainbegiratzen dituzten erakundeek eskatzen dizkieten memoria edo txostenak egin dituzten egiaztatu beharko dute.

Prestakuntza aldi horren ebaluazioa Lanbide Heziketako ikastetxearen egutegian horretarako ezartzen diren ohiko bileretan egingen da.

Jarraipeneko asteroko txostenetatik ondorioztatzen diren balorazioez gain, prestakuntzako egonaldia ebaluatzeko agiri hauek eduki beharko dira:

-Lanpostuan egon izanaren kontrola, enpresako tutoreak gainbegiratu.

-Egonaldiaren azken ebaluazioa, enpresako tutoreak egina.

Agiri horiek ikasleak entregatuko ditu, enpresak sinatu eta zigilaturik.

#### 5.4. Nazioarteko programetan parte hartzea.

Lanbide Heziketako ikastetxeek maiatzaren 26ko 54/2008 Foru Dekretuaren 27. artikuluan azaldutako modalitate eta helburuak dituzten nazioarteko proiektuak egiten badituzte edo horietan parte hartzen badute, proiektu horiek egiteko laguntza emanen da, uneoro zerikusia daukaten langileei proiektuen ondoriozko lanak egiteko erraztasunak emanaz. Horretarako, ordutegi malguak eskainiko dira edo behar bezala justifikatu eta abalaturako baimenak emanen dira.

#### 6. Langileen prestakuntza ikastaroak.

Lanbide Heziketako ikastetxeek jardunean dauden langileentzat -autonomoak zein inoren konturako langileak direla ere- eta langabezia dauden langileentzat etengabeko prestakuntzako jarduerak egiten ahalko dituzte, baita graduatu ondoko prestakuntza ere titulua duten pertsonentzat.

Emandako etengabeko prestakuntza Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza sistemaren esparruan lanbide heziketaren antolamendua eta garapena arautzen dituen maiatzaren 26ko 54/2008 Foru Dekretuaren 24. artikuluan ezarrita dagoenari nahiz Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen Zuzendaritza Nagusiak une bakoitzean ematen dituen zuzentzauei lotuko zaie.

Azaroan, Lanbide Heziketako ikastetxeek hurrengo urtean bete beharreko etengabeko prestakuntzaren programazioaren proposamena aurkeztuko dute Lanbide Heziketa eta Enpresaren Atalean. Proposamen horiek urteko programazio bakoitzerako zehazten diren irizpide, lehentasun eta betekizun ekonomikoen arabera onetsiko dira.

Ikastetxeek une bakoitzean ezarrita dauden lanbide arlo eta heziketa zikloetan oinarrituta egin beharko dituzte beren etengabeko prestakuntzako eskaintzak, eta ikastaroen proposamena egitean ondoko alderdi hauek hartu beharko dituzte kontuan:

-Eskaintza langile guztientzat egin bada, teknologia aurreratuekin eta lanbide bakoitzari aplikatzen ahal zaizkion alderdi berritzaileekin zerikusia duten ikastaroak nagusi izanen dira. Horrela, ikastetxearen

eragin eremurako edo Nafarroarako eskaintza berezia konfiguratzeko ahalgo da.

-Enpresa bat edo batzuk xede dituen jarduerak badira, oso ikastaro zehatzak programatu dira, enpresarentzako zerbitzu ona ziurtatzeko moduko arlo edo diziplinetan, bai baliabide materialen arabera, bai giza baliabideen arabera.

-Lanbide Heziketako ikastetxe bakoitzak enpresa munduari eskaintzen ahal dizkion benetako aukerak (ekipamendu maila, leku eta orduen erabilgarritasuna, irakasleen partaidetza, etab.).

-Maiatzean, Lanbide Heziketako ikastetxeek Lanbide Heziketa eta Enpresaren Atalean programaziorako beste proposamen bat aurkeztuko dute. Proposamen horretan, kontuan hartu beharko dira prestakuntza arloan beharizan berriak antzeman diren edo onetsitako ikastaroak egitea ezinezkoa den. Onetsi ondoren, proposamen berri hori irailetik abendura bitarteko aldi egiten ahalgo da.

-Heziketa zikloetan eskolak ematen dituzten irakasleek beren irakastordua osatu ahalgo dituzte langileen prestakuntzako ikastaroak emanez.

## 7. Lanbide arloko informazio eta orientazioa.

Lanbide heziketako titulu berriak abian jarriko dira, beren arkitektura berriarekin, eta horren ondorioz, litekeena da lanbide heziketaren eskaintzaren plangintza doitu behar izatea. Beraz, komenigarria da difusio, informazio eta orientazio ekintzak bultzatzea. Ikastetxeen ikuspuntutik, ekintza horien ardatzak ondoko hauek izan beharko dira bereziki:

a) Heziketa ziklo berrietara eta lanbide kualifikaziorako programa berrietara sartzeari buruzko lanbide arloko informazio eta orientazioa.

b) Desagertzearen dauden heziketa zikloak egiten ari diren eta agian lanbide moduluren bat gainditu gabe utzi duten ikasleentzako informazio eta orientazio akademikoa.

c) Heziketa ziklo berriak egiten dituzten ikasleentzako orientazio eta tutoretza berezia, laneratzeko prozesuan.

d) Heziketa ziklo berrietako lanbide moduluei dagozkien prestakuntza unitateak egiten ahalgo dituzten langileak.

2008-2009 ikasturtean, Hezkuntza Departamentuak aurrera egingen du ikastetxe integratuetako nahiz lanbide heziketa ematen duten gainerako ikastetxeetako lanbide eta lan arloko informazio eta orientazioaren ereduaren definizioan. Eredu hori lanbide arloko informazio eta

orientazioko sarearekin, sare horri lotutako interneteko atariarekin eta ikastetxe integratuen proiektu pilotu experimentalaren bilakaerarekin lotuta egonen da.

2008-2009 ikasturtean Nafarroako Enplegu Zerbitzuak kudeatutako lanbide arloko informazio eta orientaziorako ataria abian jarriko da. Atari horretan lanbide heziketa ematen duten ikastetxeei buruzko informazioa emanen da. Horretarako, ikastetxe bakoitzari dagokion informazio publikoaren edukia kudeatu beharko da. Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen Zuzendaritza Nagusiak ekintza hori koordinatuko du.

#### IV.-Ikastetxe integratuak.

##### 1. Lege esparrua.

Ikastetxe integratuen antolamendu eta funtzionamenduak abenduaren 23ko 1158/2005 Errege Dekretuan, irailaren 4ko 63/2006 Foru Dekretuan, urriaren 3ko 116/2006 Foru Aginduan eta azaroaren 14ko 1173/2006 Ebazpenean ezarritako lege esparruari jarraituko dio. Halaber, Nafarroako ikastetxe integratuen proiektu pilotua garatzeko prozesuan Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen Zuzendaritza Nagusiak jarraibide osagarriak ematen ahalko ditu, proiektua experimentalata baita.

##### 2. Ikastetxe Integratuen Proiektu Pilotu Experimentalata.

Hezkuntza kontseilariaren urriaren 3ko 116/2006 Foru Aginduan azaltzen den bezala, 2008-2009 ikasturtean ondoko ikastetxe publikoek jarraituko dute 2006-2007 ikasturtean hasitako proiektu pilotu experimentalata:

Iruñeko "Donapea" IIPk.

Iruñeko "Virgen del Camino" IIPk.

Tuterako "ETI" IIPk.

Imarkoaingo "Energia Berriztagarrien" GMLHIIk.

Ikastetxe integratuen funtzionamenduaren jarraipena behar bezala egiteko eta ikastetxe horiei proiektua gauzatzeko laguntzeko, Lanbide Heziketako Zerbitzuak aldi aldi bilerak egingen ditu zuzendariekin eta, hala badagokio, zuzendaritza taldeekin. Bilera horiek, ahal dela, astearte goizetan egingen dira.

##### 3. Ikastetxe integratuen tipologia.

Irailaren 4ko 63/2006 eta maiatzaren 26ko 54/2008 Foru Dekretuetan ezartzen denaren arabera, honela sailkatzen dira ikastetxe integratuak: ikastetxe integratu politeknikoak eta ikastetxe integratu sektorialak. Mota bietako ikastetxeen oinarrizko helburuak bat datoz, baina barnean hartzen dituzten sektoreen kopurua da bien arteko diferentzia. Ikastetxe integratu politeknikoen eginkizunen erreferentzia hainbat sektore dira; ikastetxe integratu sektorialen kasuan, aldiz, sektore bakarra da, eta sektore hori Lanbide arlo batek baino gehiagok osa dezake, baldin eta arlo horiek modu batean edo bestean antzekoak badira.

#### 4. Ikastetxe integratuen antolamendua.

Ikastetxe Integratuen Proiektu Pilotu Esperimentalaren indarraldian, eta ikastetxe horien erregelamendu organikoa garatzen ez den bitartean, erreferentziazko araubidea Ikastetxe Integratuentzako Jarraibideen 1. puntuari definitu den lege esparrua da. Sintesi gisa, lege esparru hori honela laburbiltzen ahal da: ikastetxe horien berariazko araudia eta lanbide heziketa ematen duten ikastetxeen antolaketa eta jardunaren arau orokorrak aplikatzea, ikastetxe integratuen helburu eta ezaugarri bereziengatik bestelako arau bat aplikatu behar den kasuetan izan ezik. Kasu horietan, bidezkoak diren jarraibide edo ebazpenak emanen dira.

#### 5. Ikastetxearen Zuzendaritza.

Ikastetxe integratuen ezaugarri bereziengatik eta ikastetxe horien zuzendaritza eta koordinazioak proiektu pilotu esperimentalean duen indarrarengatik, zuzendarien ordutegia zuzendaritza zereginetarako guztiz erabiltzea gomendatzen da.

Ikastetxe integratuetako zuzendariek eta zuzendaritza taldeek koordinazio bileretan parte hartuko dute Hezkuntza Departamentuko arduradunekin garapenerako ildoak ikastetxean bultzatzeko. Aldi berean, funtsezkoa da ikastetxeak zuzendaritza taldearen lidergoaren bitartez eredu berri eta aurreratuago bateko ikastetxe bilakatzeko lanari ekiteko. Gizarte Kontseiluak, onetsi beharko duen Proiektu Funtzionalaren bitartez, jarduera egokiak diseinatzeko lan, erakunde eta gizarte arloko giltzarririk esanguratsuenak ikastetxeari transferitu beharko dizkio.

#### 6. Gizarte Kontseilua.

Organo horrek bere zereginen esparruaren barruan egiten ditu jarduerak. Hain zuzen ere, zeregin horiek 63/2006 Foru Dekretuan eta 2007-2008 ikasturtean onetsi zen funtzionamenduaren Erregelamenduan ezarrita daude.

2008-2009 ikasturtean, Kontseilu horren ohiko bileretako batean, bere funtzionamendua ebaluatuko da. Horretarako, organo horren indarguneak, ahulguneak eta bidezkoak diren iradokizunak kontuan hartuko dira, eta aldean iritziak aktan jasoko dira.

#### 7. Eskola Kontseilua.

Lanbide Heziketako ikastetxeetan Gizarte Kontseiluak bere gain hartu ditu lehenago Eskola Kontseiluak betetzen zituen zereginetako asko. Gainera, ikastetxe integratu batzuek Gizarte Kontseiluaren mendeko Bizikidetzarako Batzordeak eratu dituzte, eta horri esker Eskola Kontseiluen zeregin garrantzitsu hori Gizarte Kontseilu berrietara bideratzea lortu dute. Horregatik ikastetxeak, 2008-2009 ikasturtean, ikastetxe integratuen proiektu pilotu esperimentalaren barruan eta organo egokien bitartez, ikastetxe integratuetako partaidetza organo bi horiek aldi berean egotea komenigarria den baloratu beharko du.

#### 8. Jarduera Plana.

Nafarroako Lanbide Heziketaren Kontseiluak 2008ko azaroaren 30a baino lehen ikastetxe guztiei Nafarroako Ikastetxe Integratuen Jarduera Planaren berri emanen die. Ikastetxe integratuaren beraren ikuspegi Jarduera Plan horretan txertatzeko helburuz, Ikastetxeko Zuzendariak edo, kasuan kasu, bertako Gizarte Kontseiluak, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiari ikastetxearen iritziz Nafarroako Lanbide Heziketaren Kontseiluak Plan hori egin baino lehen jakin behar dituen proposamen edo iradokizunak jakinarazi ahal izanen dizkio. Edonola ere, proposamen horiek 2008ko urriaren 30a baino lehen bidaliko dira.

#### 9. Proiektu Funtzionala.

Agiri horrek Ikastetxea definitzen du eta bere plangintzaren eta jardueren oinarriko zuzentarauak biltzen ditu. Proiektu horrek kontuan hartu behar du Hezkuntza Departamentuak eta Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuak Nafarroako Lanbide Heziketaren Kontseiluko gainerako kideekin batera ikastetxe integratuentzat definitutako Jarduera Plana, eta plan hori garatu ere egin beharko du. Urtebete naturaleko iraunaldia du, baina alderdi batzuk urtebete baino epe luzeagora hedatzen ahal dira.

Proiektu Funtzionala ondoko atalek osatuko dute:

a) Proiektu Funtzionala egiteko zuzentarauak. 63/2006 Foru Dekretuan agertzen denez, ikastetxe integratuko Gizarte Kontseiluak Jarduera Planaren interpretazioa egin behar du ikastetxe bakoitzaren inguruabarra kontuan hartuta. Interpretazio horren ondorioz, Proiektu Funtzionala egiteko zuzentaru multzo bat sortu beharko da.

b) Ikastetxearen ezaugarrien zehaztapena. Neurri batean, ikastetxearen ezaugarriak zehaztea Ikastetxearen gaur egungo Hezkuntza Proiektua berriro definitzea da, arreta ikastetxearen ezaugarri bereizgarrietan jarrita. Agiri hori urtean behin berrikusten ahalko da, baina epe ertainerako proiektu estrategikoa biltzen du. Besteak beste, ondoko alderdi hauek aipatzen ditu bereziki:

-Ikastetxearen definizioa: ikastetxearen identitatearen elementuak biltzen ditu, bere helburu orokorrak, ikuspegi estrategikoa, etab.

-Gizarte eta lanbide ingurunea: ikastetxearen gizarte eta lanbide inguruari buruzko gogoeta egiten da. Erreferentzia gisa, atenditzen duen eremu geografikoa hartzen du, eta bere eskaintza osatu behar duten lanbide arloek bete behar duten prestakuntza-eremuaren balorazioa oinarri hartzen du. Gainera, ikasleen edo irakasleen partaidetzarako proiektu egonkorren eraginpean dauden nazioarteko guneak ere kontuan hartzen dira.

-Enpresa eta erakundeekiko loturak: ikasleen, irakasleen edo langileen prestakuntzan lankidetzak-harremanak izaten direneko produkzio-ingurunea azaltzen du.

-Jarduerako ildo estrategikoak eta ekintzen ebaluazio sistema: 63/2006 Foru Dekretuak esleitutako oinarritzko eginkizunen barruan, apurka sartzen diren garapenak eta dagozkien ebaluazioak txertatuko dira.

-Kudeaketa ereduak: ikastetxearen organigrama eta maila guztien jarduketako lerro orokorrak azaltzen ditu ikastetxeen autonomiari eta erregelamendu organikoari buruzko arauak garatzen diren heinean.

c) Urteko plangintza. Urteko plangintzan erreferentzia-urtean lehentasunez landuko diren alderdiak biltzen dira:

-Urteko helburuak.

-Prestakuntza eskaintzak, batez ere etengabeko prestakuntzaren arloan.

-Ekintza estrategikoak.

d) Proiektu Funtzionalaren garapenaren ebaluazioari buruzko memoria. Agiri hori, edo bere aurrerapena, Proiektu Funtzionalan txertatuko da jardueren hurrengo aldirako, hobetzeko planteatutako proposamen eta ekimenen bilakaera egiaztatze helburuz.

Proiektu funtzionala 2008ko abenduaren 31 baino lehen Gizarte Kontseiluari bidaliko zaio onetsi dezan; gainera, kopia bat ikastetxeko ikuskatzaileari bidaliko zaio.

## 10. Ildo estrategikoen garapena.

Ikastetxe integratuen ildo estrategikoak ikastetxe horiek sortzeari buruzko irailaren 4ko 63/2006 Foru Dekretuari lotuta daude, baita lanbide heziketaren antolamendua eta garapena arautzen dituen maiatzaren 26ko 54/2008 Foru Dekretuari eta ikastetxe integratuetarako urtero ezartzen den Jarduera Planari ere. Aurreko testuinguruan, 2008-2009 ikasturterako, ikastetxe integratuek kontuan hartuko dute Jarraibide horietan lanbide heziketako ikastetxeetarako ildo estrategikoei buruz azaltzen dena.

Aurreko guztia kontuan hartuta eta ikastetxe integratuen ezaugarri bereziengatik ondoko alderdiak sakonago azter daitezela bultzatuko da:

- Etengabeko prestakuntza
- Berrikuntza
- Nazioartera ateratzea
- Lanbide arloko informazio eta orientazioa

## V.-Arte plastikoak eta diseinua

Jarraibide hauen prestaketa arautzen duen sinplifikazio printzipioari jarraikiz, Arte Plastikoak eta Diseinua ematen duten ikastetxeen antolaketa egitean kontuan hartu beharko da Berariazko Lanbide Heziketari buruzko araudia, ondoren zehazten diren alderdietan izan ezik.

### 1. Ikastaro monografikoak.

Arte Plastikoetako eta Diseinuko heziketa zikloak ematen dituzten ikastetxeen Jarduera Osagarrien Urteko Programazio Orokorrean sartuko dira, hala denean, baimentzen diren ikastaro monografikoak. Ikastaro horiek indarra duten arauak betez baimenduko dira, eta baimena jaso ondoren iragarriko.

Arte Plastikoetako eta Diseinuko heziketa zikloetan ari diren irakasleek beren irakastorduak osatzen ahalko dituzte baimentzen diren ikastaro monografikoak emanez.

### 2. Arte Plastikoetako eta Diseinuko heziketa zikloak ematen dituzten ikastetxeetan Departamentuko burua hautatzea.

Departamentu bakoitzean buru bat egonen da. Horrek departamentuaren ardura izanen du eta departamentuko kideen lana zuzenduko du.

Izendapena zuzendariak eginen du irailean eta ikasturte bat iraunen du.

Burutza hori Arte Plastikoetako eta Diseinuko Irakasleen Kidegoko katedradun batek beteko du, irakasgai komunetako eta Arte Plastikoetako Departamentuetan izan ezik, horietan Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko irakasle katedradun batek beteko baitu. Katedradun bat baino gehiago egonez gero, katedradun izaera lehenik eskuratu zuenak beteko du burutza.

Katedradunik ez badago, zuzendariak departamentuko kideen artean izendatuko du burua, departamentuaren iritzia entzun ondoren; lehentasuna izanen dute ikastetxe horretan behin betiko destinoa duten espezialitateko irakasleek.

3. Arte Plastikoetako eta Diseinuko heziketa zikloak ematen dituzten ikastetxeetan taldeak hautatzeko ordena.

Ikastetxeko zuzendariak, klaustroko bilkuran, departamentu didaktikoei jakinaraziko dizkie Batxilergoko irakasgaiari dagokien ordu kopurua, egokitu zaizkien heziketa zikloetako moduluak eta, oro har, curriculum ofizialen arabera departamentu bakoitzari dagozkion eskola orduak.

Irakasgai komunetako eta Arte Plastikoetako departamentuen kasuan, kontuan harturik Bigarren Hezkuntzako Kidegoko irakasleek Batxilergoko arlo edo irakasgaiak emateko lehentasuna eta betebeharra dutela, honako hurrenkera hau segitu beharko da hautatzerakoan:

1. Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko irakasle katedradunak, ikastetxean behin betiko destinoa dutenak.
2. Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko irakasleak, beren departamentuko espezialitateko titularrak, ikastetxean behin betiko destinoa dutenak.
3. Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko irakasleak, behin betiko destinoa beste ikastetxe batean izan arren, irakaslanik ez izateagatik destinoko ikastetxetik aldarazi badituzte.
4. Zerbitzu eginkizunetan dauden Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko irakasleak.
5. Destino zain dauden Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko irakasleak.
6. Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko azken oposizio-lehiaketa gairitu dutenak.

7. Zerbitzu berezietan diharduten Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko funtzionarioak eta lan- kontratudun finkoak.

8. Arte Plastikoetako eta Diseinuko Irakasleen Kidegoko irakasle katedradunak, ikastetxean behin betiko destinoa dutenak.

9. Arte Plastikoetako eta Diseinuko Irakasleen Kidegoko irakasleak, ikastetxean behin betiko destinoa dutenak.

10. Arte Plastikoetako eta Diseinuko Irakasleen Kidegoko irakasleak, behin betiko destinoa beste ikastetxe batean izan arren, irakaslanik ez izateagatik destinoko ikastetxetik aldarazi badituzte.

11. Zerbitzu eginkizunetan dauden Arte Plastikoetako eta Diseinuko Irakasleen Kidegoko irakasleak.

12. Destino zain dauden Arte Plastikoetako eta Diseinuko Irakasleen Kidegoko irakasleak.

13. Arte Plastikoetako eta Diseinuko Irakasleen Kidegoko azken oposizio-lehiaketa gainditu dutenak.

14. Zerbitzu berezietan diharduten Arte Plastikoetako eta Diseinuko Irakasleen Kidegoko funtzionarioak eta lan-kontratudun finkoak.

15. Administrazio edo lan araubidean aldi baterako kontratatutako irakasleak.

Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakasleen eskumenpekoak diren Batxilergoko Arteen modalitateko irakasgaiak (Arte plastikoen, diseinuaren eta irudiaren bidekoak), abenduaren 5eko 1284/2002 Errege Dekretuko VI. eranskinaren arabera, ezin izanen dituzte hautatu Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko irakasleek, baldin eta, hautatze horren ondorioz, ordutegia osatzeko aukera kentzen badiete irakaslan Batxilergoari berari dagozkion orduekin osatuko luketen Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakasleei.

8. puntutik 15.era bitarte aipatu den hautatzeko lehentasuna aplikatuko da heziketa zikloetako moduluen eskola orduak banatzeko txandetan.

Batxilergoko Arte modalitatearen curriculumeko arte lantegietako irakaslan Arte Plastikoetako eta Diseinuko Tailer Maisuen Kidegoko irakasleek egiten ahalko dute.

4. Arte Garatu eta Sustatzeko Departamentua.

Arte Eskola bakoitzean Arte Garatzeko eta Sustatzeko Departamentua eratzen ahal da; horien betebeharren artean, jarraian ezarritakoarekin

bat, ikastetxeko jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak programatzea eta garatzea egonen da.

#### A.-Eratzea.

Departamentu horren barruan bertako burua egonen da eta, eginen den jarduera zehatz bakoitzeko, horren ardura duten irakasle eta ikasleak.

#### B.-Departamentuko burutza.

Artea Garatu eta Sustatzeko Departamentuko burua jarduneko irakasle bat izanen da, karrerako funtzionarioa edo lan-kontratudun finkoa, eta ikastetxe horretan beharko du izan behin betiko destinoa. Zuzendariak izendatuko du urtebeterako, gainerako departamentuetako buruek esandakoa entzun ondoren.

#### C.-Departamentuko buruaren eginkizunak.

Departamentuko buruak, ikasketaburuaren menpean, ondoko eginkizun hauek izanen ditu:

- a) Curriculum Proiektuen prestakuntzan parte hartzea.
- b) Departamentuak ikasturte osoan eginen dituen jardueren Urteko Programa prestatzea. Programa horretan gainerako departamentuen, irakasleen, ikasleen eta gurasoen proposamenak bilduko dira.
- c) Ikasleei departamentuaren jardueri buruzko informazioa ematea; ikastetxean eginen diren erakusketa eta ekintza kulturali buruzkoa bereziki.
- d) Beste departamentu batzuen, klaustroaren, ikasleen ordezkarien batzordearen eta gurasoen elkarteekin laguntzarekin erakusketak eta ekintza kulturalak sustatzea, koordinatzea eta antolatzea.
- e) Ikasketa bidaiak, eskolen arteko trukaketak eta, oro har, ikastetxean ikasleentzat antolatzen den edozein txango edo bidaiaren antolamendua koordinatzea.
- f) Eskola Kontseiluak jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak egiteko ematen dituen baliabide ekonomikoak banatzea.
- g) Arte Eskolako Liburutegiaren erabilera antolatzea.
- h) Egindako jardueren ebaluazioa jasoko duen memoria egin eta Urteko Programazio Orokorraren amaierako memorian sartzea. Uztailaren 10a baino lehen Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzura bidaliko da.

3. Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkez daiteke, Hezkuntza Departamentuko kontseilariari zuzendua, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean.

4. Ebazpen hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da.

5. Ebazpen hau igortzea Lanbide Heziketaren Zerbitzura, Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzura eta Ikastetxeen Plangintza eta Garapenerako Atalera, behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2008ko abuztuaren 4an.-Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusia, Pedro González Felipe.

Iragarkiaren kodea: F0812525